

**Erabakia, 2019ko urtarrilaren 14koa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearena, lehenengo taldean lan kontratudun langile gisa sartzeko IKTko goi mailako teknikaria (Sistemen Informatika) hautaketa prozesuan onartuak eta baztertuak izango diren hautagaien behin-behineko zerrenda onartzeko dena**

Errektorearen 2018ko azaroaren 2ko erabakiaren bidez Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) lan kontratudun langile gisa sartzeko hautaketa prozesuak arautzeko oinarri orokorrak eta espezifikoak argitaratzea agindu zen. Hautaketa prozesu horiek Gobernu Kontseiluaren 2016ko uztailaren 7ko eta 2017ko abenduaren 14ko erabakien ondorio dira. Erabaki horretan administrazio eta zerbitzuetako langileentzako 2016rako eta 2017rako lan eskaintza publikorako eskaintza onartu zen.

Seigarren oinarri orokorreko lehenengo paragrafoan zehaztutakoari jarraituz, UPV/EHU gerenteak eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartzeko erabakia emango du, baztertutakoen kasuan, kanpoan uzteko arrazoiak adierazita.

Arestian adierazitakoagatik eta errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko erabakiaren bidez (2017ko otsailaren 3ko EHAA) pertsonalaren alorrean eskuordetu zaizkidan ahalmenez baliatuz,

#### **ERABAKI DUT:**

**Lehenengoa.-** Lehenengo taldearen, IKTko goi mailako teknikaria (Sistemen Informatika) hautaketa-prozesuan parte hartzeko onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartzea, txanda askeari, eta ezgaitasun pertsonen txandari dagokienez. Erabakian baztertua izateko arrazoiak adierazten dira.

**Bigarrena.-** Erabaki hau UPV/EHUko web orrian argitaratzea (<https://www.ehu.eus/eu/web/azp/epe-2016-2017-lan-kontratudun-pertsonala>) baita UPV/EHUko iragarki-oholetan ere.

**Hirugarrena.-** 6.2. oinarri orokorrean adierazitakoaren arabera hamar egun baliodunen barruan, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, onartutakoen eta baztertutakoen zerrendaren aurkako erreklamazioak egiteko, edo, hala dagokionean, baztertzea eragin duen arrazoa zuzentzeko.

Leioan, 2019ko urtarrilaren 14ean

Errektoreak 2017ko urtarrilaren 25eko erabaki bidez eskumenak erabiliz (2017ko otsailaren 3ko EHAA)

MIREN LOREA BILBAO  
UPV/EHUko GERENTEA

